



Euskal Herriko eta Espainiako banakako Txapelketaren atarian maila ona eman dute Quincoces, Ajuria eta Urbizuk Munduko Kopan

2018ko urtarrilak 29. Munduko Kopako hirugarren proba jokatu da joan den asteburuan Andorrako Font Blancan. Larunbatean bakarkako lasterketa bertan behera utzi behar izan zuten eguraldi baldintza kaxkarrengatik. Igandean, berriz, baldintzek hobera egin zuten eta lasterketa bertikala egin zen.

Mendi Eskiko Euskal Taldeko hiru ordezkariak parte hartu zuten bertan Espainiako Selektzioarekin. [Nahia Quincocesek](#) 13. amaitu zuen seniorretan, maila oso txukuna eskainita. Eta juniorretan, [Aitor Ajuriak](#) 18. eginez neurria eman zuen beste behin Munduko Kopako bere bigarren parte hartzean, eta [Rafa Urbizu](#), debutean, ez zen atzera geratu 21. amaituz.

EMAITZAK

Font Blanca-Andorra Munduko Kopa (3. Proba)
BERTIKALA

Senior W

1.Axelle Mollaret (FRA)	31:37
13.Nahia Quincoces	35:47

Junior M

1.Andrea Prandi (ITA)	30:01
18.Aitor Ajuria	34:28
21.Rafa Urbizu	36:13





Causiat Extreme: Euskal Herriko eta Espainiako bakarkako Txapelketa 2018, eta Euskal Herriko Kopako lehen proba

Datorren larunbatean, otsailak 3, Candanchun Causiat Extreme proba jokatu da, aurten banakako Euskal Herriko eta Espainiako Txapelketa, eta Euskal Herriko Kopako lehen proba. Denboraldiko hitzordu nagusietako bat EMF-ren Mendi Eskiko Euskal Taldeko kideentzat. Han izango dira 11 kideak bateko Txapelen eta besteko podiumen lehian.

Senior

NAHIA QUINCOCES (Lekeitio, Candanchu Ski Alp)

LIDE LEIBAR (Oiartzun, CM Gasteiz)

IGONE CAMPOS (Zumarraga, Goierri Garaia)

IÑIGO MARTINEZ DE ALBORNOZ (Donostia, Candanchu Ski Alp)

IGOR ALZELAI (Legazpi, Candanchu Ski Alp)

MIKEL NAVARRO (Urretxu, Besaide ME)

IÑIGO LARIZ (Elgoibar, Lizarpe MK)

Junior

AITOR AJURIA (Otxandio, Miru Gain ME)

IBAI OTAEGI (Errezil, Lagun Onak MT)

ANDER GABIÑA (Gasteiz, CM Gasteiz)

RAFA URBIZU (Donostia, CVCE)

EMF-Euskal Herriko Txapelketak 2018

Banakakoa: [Causiat Extreme](#) (otsailak 3)

Bertikala: [Bandres-Karolo Memoriala](#) (otsailak 17)

Taldeakoa: [Regil Zeharkaldia](#) (martxoak 10)

EMF-Euskal Herriko Kopa 2018

Lau probek osatuko dute 2018ko Euskal Herriko Kopa: [Causiat Extreme](#) Candanchun (otsailak 3), [Bandres-Karolo Memoriala](#) Izaban (otsailak 17-18), [Alti-Toy Ternua](#) Luz Ardiden-Pic du Midi-Tourmalet-en (martxoak 3-4), eta [Regil Zeharkaldia](#) Europako Haitzean (martxoak 10).



2018 Lehiaketa Egutegia

	Proba	EH Txapelketa	EH Kopa	Esp Txapelketa	Munduko Kopa
01-13	Open Vall de Boí Boí Taüll			Bertikala	
01-14	Open Vall de Boí Boí Taüll			Sprint	
01-27	World Cup Andorra Font Blanca				Open Banaka eta Bertikala
02-03	Causiat Extreme Candanchu	Banakakoa	1.a	Banakakoa	
02-17	Bandres-Carolo Izaba	Bertikala			
02-18	Bandres-Carolo Memoriala Izaba		2.a		
03-03	Alti Toy Luz Ardiden				
03-04	Alti Toy Luz Ardiden		3.a		
03-10	Andres de Régil Europako Haitza	Taldeka	4.a		
03-17	Rally V.de Aragón Candanchu			Taldeka	

